dariaren 1992ko urriaren 5eko Erabakiaren bidez argitaratutako hitzarmen-eredua, berriz, indargabetu egingo da.

Hamahirugarrena.– Hitzarmen honek urtebeteko iraupena izango du. Era berean, urtebeteka luzatuko da berez, baldin eta alderdietako batek ere amaitutzat jotzeko asmoa berariaz adierazten ez badu.

Hamalaugarrena.– Izenpetzen duen edozein alderdik, bere kontura, amaitutzat jo ahal izango du hitzarmen hau; horrelakoetan, nolanahi ere, bermatu egin beharko da hasitako jarduerak bukatuko direla. Erabaki hori idatziz jakinarazten denetik hiru hilabetera, Hitzarmenak indarra galduko du.

Eta alderdi biak ados daudela adierazteko, Hitzarmen hau izenpetu dute Gasteizen, _____ko _____aren _____(e)an.

Herri Arduralaritzaren _____
Euskal Erakundearen izenean _____(ren) izenean

_____ _____
_____ ____

venio de colaboración suscrito según el modelo publicado mediante Resolución del Director del IVAP de 5 de octubre de 1992.

Decimotercera.– El presente Convenio tendrá una validez de un año y se prorrogará automáticamente por períodos consecutivos de un año, siempre y cuando ninguna de las partes manifieste expresamente su voluntad de denunciarlo.

Decimocuarta.– El presente Convenio podrá ser denunciado unilateralmente por cualquiera de las partes contratantes, debiendo garantizarse, en tal caso, la finalización de las actividades ya iniciadas. El Convenio finalizará su vigencia a los tres meses de comunicarse por escrito tal determinación.

Y en prueba de conformidad ambas partes firman el presente Convenio, en Vitoria-Gasteiz, a _____ de _____ de_____ .

Por el Instituto Vasco de Administración Pública — Por el Ente Público _____

_____ _____
_____ ____

INDUSTRI, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

Zk-2908

107/1998 DEKRETUA, ekainaren 9koa, kanalizatutako gasaren zerbitzu publikoaren instalazioei baimena eman eta horiek jardunean jartzeari buruzkoa.

Urriaren 26ko 2913/1973 Dekretuaz onartu eta gas erregaien Zerbitzu Publikoari buruzko Erregelamendu Orokorreko 9. atalean, zera xedatzen da, hau da, hirietan banaketa egiteko sareak areagotzeari dagozkion instalazioentzako baimenak, bat baino gehiago batera eman ahal izango direla urterako proiektatuta dauden guztientzako eta beren eremu geografikoaren barruan. Urtea amaitzean, baimenak hartu dituen instalazioak zehaztu egin beharko dira.

Era berean, honako hau ere ezartzen da 9. atal horretan: saretik instalazio hartzileetara egin daitezen gashartzeek ez dute beharko baimenik gasa industrietan erabiltzeko izan ez dadinean; eta industrietarako denean, kasu berezi batzuetan bakarrik, alegia, Industri Ministerioaren Ordezkaritza Probintzialak baimena izatea beharrezkoa dela jo dezanean hain zuzen.

Bestalde, aipatu den Erregelamenduko 30. ataleko h) idazatian esaten denez, ezin jarriko da ihardunean instalazio bat, Industriako Ministerioko Ordezkaritza

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, AGRICULTURA Y PESCA

N°-2908

DECRETO 107/1998, de 9 de junio, sobre autorización y puesta en servicio de instalaciones de servicio público de gas canalizado.

El Reglamento General del Servicio Público de Gases Combustibles, aprobado por Decreto 2913/1973, de 26 de octubre, prevé en su artículo 9 que las autorizaciones de instalaciones correspondientes a ampliaciones de redes de distribución urbana, dentro de su área geográfica, podrán ser objeto de una autorización conjunta para todas las proyectadas en el año, al término del cual se concretarán las instalaciones afectadas por la autorización.

Así mismo, el citado artículo 9 establece que las acometidas desde la red a las instalaciones receptoras para usos no industriales no precisarán autorización, y para las de usos industriales, solamente en casos especiales, cuando por su importancia la Delegación Provincial del Ministerio de Industria correspondiente estime debe ser objeto de la misma.

Por otra parte, el artículo 30, apartado h) del citado Reglamento, prescribe que no podrá ser Puesta en servicio ninguna instalación sin la previa extensión del

Probintzialeko eskumendun langile batek onarpen edo ihardute-akta izenpetu dezan arte.

Liberalizazio Industrialari buruzko irailaren 26ko 2135/1980 Errege Dekreetuan; Industriari buruzko uztailaren 16ko 21/1992 Legean eta Baimendutako Kontrolerako Erakundeak (BKE) arautzen dituen abenduaren 28ko 2200/1995 Errege Dekretuko 1. sekzioko IV. atalburuan, honako hau xedatzen da, hots, ikuskaritza eta kontrola eskuz aldatu daitezkeela parte hartu behar duten agenteen artean, baina jardunean jarri baino lehen burutu beharko da hori. Agente horiek izan daitezke proiektistak, obraren zuzendariak eta kontrolerako erakundeak; hala ere, Administrazioak burutu dezakeen zaintza eta kontrola ez dira alde batera utzi behar.

Ondorioz, sareetan eta harguneetan egin beharko diren handiagoketa txikiak asko direnez; aurrikustea zaila denez eta, ondorioz, urte bakoitzari dagozkionak aurrez antolatzea gatxa denez; eta horiek administrazio arloan jardunean jartzea arindu behar denez, izapideketa-sistema berri bat garatzen da dekretu honetako xedapen-zatian. Hona hemen zati horri buruzko zehaztasunak: Administrazio honek giza eta teknika mailan dituen baliabideak eta eraginpeko instalazioak jardunean jartzeko behar diren segurtasun-neurri batzuk bateratzea da helburuetariko bat eta, gainera, gaiari buruzko araurik ezak dakarren hutsunea betetzea. Eta hori horrela egin behar da, gas erregaien arloko egintzak koordinatuki garatzeko oinarrizko xedapenei buruzko ekainaren 15eko 10/1987 Legea garatuko duen Erregelamendua onartu dadin arte.

Horiek horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 10. ataleko 11. idazatian xedatzen denari jarraituaz; Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1998ko ekainaren 9an egin zuen bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. atala.– Aplikazio eremua.

Egin behar diren instalazio berriei aplikatuko zaizkie dekretu honetan jasotzen diren xedapenak, alegia, ondoren aipatzen diren taldeei, gas erregaien Zerbitzu Publikoari buruzko Erregelamendu Orokorrean agintzen denaren arabera eta erregelamendu horretan ezartzen diren ondorioetarako:

A taldea.– Baimen indibiduala behar duten instalazioak:

– Presio handiko gasa garraiatzeko edo banatzeko kanalizazioak.

– Konpresio estazioak.

– Erregulazio estazioak: gasak irteeran presio handia edo ertaina du.

Acta de Reconocimiento o Puesta en Marcha por personal facultativo del Delegación Provincial del Ministerio de Industria.

Posteriormente, el Real Decreto 2135/1980 de 26 de septiembre sobre Liberalización Industrial, la Ley 21/1992, de 16 de julio, de Industria y el Real Decreto 2200/1995, de 28 de diciembre, en su capítulo IV, sección 1.ª, que regula los Organismos de Control Autorizado (OCAS), recogen la delegación de la inspección y control, previos a la puesta en servicio, en los agentes intervinientes, proyectistas, directores de obra y organismos de control, sin menoscabo de la superior vigilancia y control de la Administración.

En consecuencia, y dado el elevado número de pequeñas ampliaciones de redes y acometidas, la dificultad de prever con antelación, y por tanto proyectar las correspondientes a cada año, así como la necesidad de agilizar la puesta en marcha de las mismas desde el punto de vista administrativo, el sistema de tramitación que se desarrolla en la parte dispositiva de este Decreto trata de conjugar los recursos humanos y técnicos de los que dispone esta Administración con la necesidad de garantizar unas determinadas medidas de seguridad en el funcionamiento de las instalaciones afectadas, tratando a su vez de llenar el vacío reglamentario existente en tanto no se apruebe el Reglamento de desarrollo de la Ley 10/1987, de 15 de junio, de disposiciones básicas para un desarrollo coordinado de actuaciones en materia de combustibles gaseosos.

En su virtud y a tenor de lo dispuesto en el artículo 10 apartado 11 del Estatuto de Autonomía del País Vasco, a propuesta del Consejero de Industria, Agricultura y Pesca, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 9 de junio de 1998

DISPONGO:

Artículo 1.– Ámbito de aplicación.

Las disposiciones contenidas en el presente Decreto se aplicarán a las instalaciones de nueva construcción que, de acuerdo con el Reglamento General del Servicio Público de Gases Combustibles y a los efectos de la misma, se recogen en los siguientes Grupos:

Grupo A.– Instalaciones que requieren de autorización individual:

– Canalizaciones de transporte o distribución en alta presión.

– Estaciones de compresión.

– Estaciones de regulación con salida en alta presión o media presión.

– Hiriko eta hiriarteko sareak eta poligono industrialak. Gasak B mailako presio ertaina izango du.

– Desjabetze espedientearen beharra duen edozein instalazio.

– B edo C taldeetan jasotzen diren kasuetan sartzen ez den edozein instalazio.

B taldea.– Urtero-urteko legalizatu behar diren eta aurre-baimenik behar ez duten instalazioak:

– Industrietarako gasa hartzeko instalazioa. Gasak presio handia edo ertaina izan dezake. Eta instalazio horrek 25 metro edo gutxiago izan behar ditu.

– Hirietako edo poligono industrialetako banaketa-sareak handiagotzea edo berriztatzea. Gasak presio handi edo apala izan dezake. Adarraren luzeerak ez du izan behar 250 metrotik gorakoa.

C taldea.– Instalazio liberalizatuak.

– Etxeetarako eta merkatalguneetarako gasaren instalazioa. Gasak presio ertaina edo apala izan dezake.

2. atala.– Instalazioak egiteko baimenak.

A taldean definitzen diren instalazioak egin ahal izateko, Administrazioaren baimena beharko da eta eskumendun teknikariak izenpetutako eta Elkargo Ofizialak bisatutako proiektu espezifikoa aurkeztu beharko da lehenago.

B eta C taldeetan jasotzen diren instalazioak egin ahal izateko, ez da beharko Administrazioaren baimenik.

3. atala.– Arauzko frogak egitea eta gainbegiratzea.

Instalazioen arauzko frogak, 1. atalean aipatzen direnak egitea eta gainbegiratzea hornidura egin duen enpresaren esku gelditukо dira edo enpresa horrek lan hori egiteko izenda dezan baimendutako kontrol-erakundeak.

A eta B taldeetan definitzen diren instalazioei dagokienetan, enpresa hornitzaileak, froga horiek zein egunetan egingo direnaren berri eman beharko dio dagokion Lurralde Bulegoari hiru egun baliodun lehenago gehienera ere. Honako hauek jaso beharko dira komunikazio horretan: instalazioen ezaugarriak, non kokatu behar diren, burutu beharreko frogak, enpresa hornitzailearen arduradun teknikoa eta froga horiek burutuko dituen kontrol-erakundea hain zuzen.

Burutu daitezen arauzko frogei buruzko akta egingo da, erregistro grafiko eta guzti.

C taldean definitzen diren instalazioei dagokienetan, enpresa hornitzaileak edo baimena duen kontrol-erakundeak burutuko ditu arauzko frogak eta ez da beharrezkoa izango Lurralde Bulegoari horren berri ematea. Froga horiei buruzko akta egin beharko da.

Lurralde Bulegoko eskumendun langileak joan ahal izango dira froga horiek egiten diren lekura, ikuskari-

– Redes urbanas e interurbanas y polígonos industriales desarrollados en media presión B.

– Cualquier instalación que requiera de un expediente expropiatorio.

– Cualquier instalación no incluida en los supuestos recogidos en los Grupos B o C.

Grupo B.– Instalaciones a legalizar anualmente y que no precisan de autorización previa:

– Acometidas en alta o media presión para usos industriales, de longitud igual o inferior a 25 metros.

– Ampliaciones o renovaciones de redes urbanas o de polígonos industriales de distribución en media o baja presión, cuya longitud no exceda de 250 metros por ramal.

Grupo C.– Instalaciones liberalizadas:

– Acometidas en media o baja presión para usos domésticos o comerciales.

Artículo 2.– Autorización de Instalaciones.

Para la ejecución de las instalaciones definidas en el Grupo A se requerirá de autorización administrativa, previa presentación de proyecto específico suscrito por técnico competente y visado por el correspondiente Colegio Oficial.

Para la ejecución de las instalaciones recogidas en los Grupos B y C no se requerirá de autorización administrativa previa.

Artículo 3.– Ejecución y supervisión de las pruebas reglamentarias.

La ejecución y supervisión de las pruebas reglamentarias de las instalaciones relacionadas en el artículo 1, se realizará por la propia empresa suministradora o por organismo de control autorizado que la misma designe al efecto.

En relación con las instalaciones definidas en los Grupos A y B, la empresa suministradora comunicará a la Oficina Territorial correspondiente, con tres días hábiles de antelación como mínimo, la fecha en que se realizarán dichas pruebas. La comunicación incluirá las características de las instalaciones, su ubicación, pruebas a realizar y responsable técnico de la empresa suministradora u organismo de control que las llevará a cabo.

Se deberá levantar Acta de las pruebas reglamentarias efectuadas, con sus correspondientes registros gráficos.

En relación con las instalaciones definidas en el Grupo C, la empresa suministradora o el organismo de control autorizado realizará las pruebas reglamentarias sin necesidad de efectuar previa notificación a la Oficina Territorial correspondiente, debiendo levantar Acta de las mismas.

El personal facultativo de la Oficina Territorial correspondiente podrá asistir a la realización de dichas

tzak gauzatzeko bulego horrek eratuta izan dezan planifikazioari jarraituaz.

4. atala.– Jardunean jartzea, behin-behingoz.

A taldean aipatzen diren instalazioak jardunean jarri ahal izango dira aldibaterako bada ere, enpresa hornitzaileak gero aipatzen diren agiriak dagokion Lurralde Bulegoan aurkeztu ondoren eta bulego horrek horiekiko diligentziak burutu ditzanean.

– Jardunean jartzeari buruzko akta eskatzea.

– Obraren Zuzendaritzaren ziurtagiria, eskumendun teknikariak izenpetuta eta Elkargo Ofizialak bisatuta. Honako hauek jaso beharko dira ziurtagiri horretan: aurkeztu zen proiektuari instalazioa egokitzen zaion ala ez eta proiktuan egin diren ezfuntsezko aldaketak; aplikagarriak diren arau teknikoak instalazioak betetzen dituen ala ez eta burutu diren arauzko frogen, entseiuen eta berifikazioen emaitzak aldekoak diren ala ez.

– Soldaduren ziurtagiria, behar bada.

– Frogen aktak, horiei buruzko erregistro grafiko eta guzti.

B taldean aipatzen diren instalazioak jarri ahal izango dira jardunean aldibaterako bada ere. Gas erregaien Sare eta Estekaguneei buruzko Erregelamenduan aipatzen diren frogak, obretan egindakoak noski, gainditu beharko dituzte instalazioek.

Aldibaterako jardunean jartze hori enpresa hornitzailearen eta, hala behar izan dadinean, obrako zuzendariaren ardurapean egingo da eta jardunean jartzeari buruzko akta egin dadin egunera arte eutsi ahal izango zaio.

5. atala.– A taldeko instalazioak jardunean behin-betiko jartzea.

A taldeko instalazioak jardunean behin-betiko jarri ahal izateko, 4. atalean aipatzen diren agiriak aztertu beharko ditu dagokion Lurralde Bulegoak eta, instalazioen ikuskaketa egin ondoren, jardunean jartzeari buruzko akta egingo du bidezkoa bada.

6. atala.– B taldeko instalazioak jardunean behin-betiko jartzea.

B taldeko instalazioak jardunean behin-betiko jarri ahal izateko, enpresa hornitzaileak, gero aipatzen diren banan-banako eta udalerrika banandutako honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu dagokion lurralde bulegoan. Urtearen lehenengo hiruhilabetekoaren barruan egin beharko da hori eta aurreko urtean exekutatutako obrei buruzkoak izango dira agiriak. Hona hemen aurkeztu beharreko agiriak:

– Jardunean jartzeari buruzko aktari buruzko baterako eskabidea.

– Obra ikuskaritzaren ziurtagiriak, eskumendun teknikariak izenpetutakoak eta Elkargo Ofizialak bisatutakoak. Honako hauek jaso beharko dira ziurtagiri

pruebas, de acuerdo con la planificación de inspecciones que tenga establecida.

Artículo 4.– Puesta en marcha provisional.

Las instalaciones relacionadas en el Grupo A podrán ponerse en marcha provisionalmente una vez que la empresa suministradora haya presentado en la Oficina Territorial correspondiente, y ésta haya diligenciado, la siguiente documentación:

– Solicitud de Acta de Puesta en Marcha.

– Certificado de Dirección de Obra, firmado por técnico competente y visado por el correspondiente Colegio Oficial, en el que se hará constar que la instalación se ajusta al proyecto presentado, con las modificaciones no sustanciales habidas, en su caso, respecto al mismo, así como que dicha instalación cumple con la reglamentación técnica aplicable, y que el resultado de las pruebas, ensayos y verificaciones reglamentarias es favorable.

– Certificado de soldaduras, cuando proceda.

– Actas de pruebas con los registros gráficos de las mismas.

Las instalaciones recogidas en el Grupo B podrán ponerse en marcha provisionalmente una vez superadas las pruebas en obra, previstas en el Reglamento de Redes y Acometidas de Combustibles Gaseosos.

La puesta en marcha provisional se realizará bajo la responsabilidad de la empresa suministradora y del director de obra, en su caso, y podrá mantenerse hasta la emisión de la correspondiente Acta de Puesta en Marcha.

Artículo 5.– Puesta en marcha definitiva de las Instalaciones del Grupo A.

Para la puesta en marcha definitiva de las instalaciones del grupo A, la Oficina Territorial correspondiente examinará la documentación mencionada en el artículo 4 y, previo reconocimiento de las instalaciones, procederá, en su caso, a emitir el Acta de Puesta en Marcha.

Artículo 6.– Puesta en marcha definitiva de las Instalaciones del Grupo B.

Para la puesta en marcha definitiva de las instalaciones del grupo B, la empresa suministradora deberá presentar en la Oficina Territorial correspondiente, como máximo en el primer trimestre de cada año, y referida a las obras ejecutadas en el año anterior, la siguiente documentación individualizada y separada por municipios:

– Solicitud conjunta del Acta de Puesta en Marcha.

– Certificados de Inspección de Obra, firmados por técnico competente y visados por el correspondiente Colegio Oficial, en los que se hará constar que la instala-

horietan: hasierako proiektuan eraikuntza egiteko ematen diren irtenbideen arabera egin dela instalazioa, aplika daitezkeen arau teknikoak bete direla eta arauzko frogen, entseiuen eta berifikazioen emaitzak aldezkoak izan direla. Hasierako proiektuaren areagoketa edo berrikuntza da, izan ere, instalazio hori.

– Soldaduraren ziurtagiria, hala behar izan dadinean.

– Frogen aktak, beroiei buruzko erregistro grafiko eta guzti.

– Planoak, gauzatu diren instalazioen eraikuntzaren araberakoak.

Lurralde Bulegoak jardunean jartze-akta emango du, beharrezkoa izan dadinean eta aurrean aipatu diren agiriak aztertu ondoren.

7. atala.– C taldeko instalazioak jardunean jartzea.

C taldean definitzen diren instalazioak jardunean jarri ahal izango dira gas erregaien Sare eta Estekaguneei buruzko Erregelamenduan aipatzen diren frogak, obran egindakoak noski, gainditu ondoren.

Hori horrela bada ere, dagokion Lurralde Bulegoak, dossier bat aurkeztu beharko du, gehienera ere, urte bakoitzeko lehenengo hiruhilabetekoaren barruan. Honako hauek jaso beharko dira dossier horretan: aurreko urtean egin diren estekaguneak, horien izenen zerrenda eta eraikuntzen araberako bildumaren kopia bat. Bilduma hori eusgarri informatikoan aurkeztu ahal izango da.

Dagokion Lurralde Bulegoak agiri horiek eskuratu ditzanean, instalazio horiek jardunean jartze-akta egindakotzat joko da.

8. atala.– Informazioa komunikatzea.

Enpresa hornitzaileak, udalerri bakoitzean dauden instalazioen planoen kopia bat aurkeztu beharko du urte bakoitzeko urtarrilean eta eusgarri informatikoan.

9. atala.– Zehapen erregimena.

Dekretu honetan agintzen dena ez betetzea zigortu egingo da, indarrean dauden xedapenetan agintzen denari jarraituaz.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburuari esku ematen zaio, dekretu hau betetzeko eta garatzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko eta bai bertan ezartzen diren aldizkotasunak eta epeak aldatu ahal izateko ere. Agindu bidez egin beharko du hori.

ción se ha ejecutado con las mismas soluciones constructivas al proyecto original del que es ampliación o renovación, que cumple con la reglamentación técnica aplicable, y que el resultado de las pruebas, ensayos y verificaciones reglamentarias es favorable.

– Certificado de soldaduras, cuando proceda.

– Actas de pruebas con los registros gráficos de las mismas.

– Planos según construcción de las instalaciones realizadas.

La Oficina Territorial, examinada la documentación anterior, procederá, en su caso, a emitir el Acta de Puesta en Marcha.

Artículo 7.– Puesta en Marcha de las Instalaciones del Grupo C.

Las instalaciones definidas en el Grupo C podrán ponerse en marcha una vez superadas las pruebas en obra, previstas en el Reglamento de Redes y Acometidas de Combustibles Gaseosos.

No obstante lo anterior, la empresa suministradora deberá presentar, en la Oficina Territorial correspondiente, como máximo en el primer trimestre de cada año, un dosier donde se recojan las acometidas construidas en el año anterior, incluyendo la relación nominal de las mismas y una copia de la colección de los planos según construcción, que podrá ser presentada en soporte informático.

A la recepción por la Oficina Territorial correspondiente de la mencionada documentación, se entenderá otorgada el Acta de Puesta en Marcha de las citadas instalaciones.

Artículo 8.– Comunicación de información.

La empresa suministradora presentará en el mes de enero de cada año una copia en soporte informático de los planos de las instalaciones existentes en cada municipio.

Artículo 9.– Régimen Sancionador.

El incumplimiento de lo preceptuado en el presente Decreto, será sancionado de acuerdo con lo dispuesto en la legislación vigente.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Se faculta al Consejero de Industria, Agricultura y Pesca para dictar las disposiciones de ejecución y desarrollo del presente Decreto, así como para modificar mediante Orden las periodicidades y plazos establecidos en el mismo.

Bigarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epearen barruan jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 1998ko ekainaren 9an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

Segunda.– El presente Decreto entrará en vigor en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 9 de junio de 1998.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Industria, Agricultura y Pesca,
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

Zk-2909

AGINDUA, 1998ko ekainaren 16koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Donostiako Erdi-Mailako Musika-Kontserbatorioaren (Donostia-San Sebastián) eta «Jesús Guridi» Erdi-Mailako Kontserbatorioaren (Vitoria-Gasteiz) aukera-eskubidea erabiltzeko prozedura arautzen duena.

Donostiako erdi-mailako musika-kontserbatorioa (Donostia-San Sebastian) eta «Jesús Guridi» erdi-mailako kontserbatorioa (Vitoria-Gasteiz) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren menpeko ikastetxeen sare publikoan sartzeko Legea onartu zuen Eusko Jaurlaritzak 1998ko martxoaren 23ko bileran.

Aukera-eskubidea egikaritzeko sei hileko epea dute erdi-mailako bi kontserbatorioek, aipatu dugun Legea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen egunetik hasita (1998ko maiatzaren 4a).

Legeak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari agintzen dio integratzeko eskubidea egikaritzeko prozedura arautzeko, beti ere, 2. eta 3. ataletan jasotakoa errespetatuz. Atal horiek gai garrantzitsuak jasotzen dituzte; hala nola, gaur egun kontserbatorioak kokatuta daudeneko ondareak eta kontserbatorioetako langile irakasleak nahiz irakasle ez diren langileak.

Prozesu horren guztiaren amaieran, behin prozesua berrikusi ondoren, kontserbatorio biak herri-ikastetxe gisa sortuko dira Gobernu Kontseiluaren bi dekretuen bitartez.

Horregatik guztiagatik, hau

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Nº-2909

ORDEN de 16 de junio de 1998, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se regula el procedimiento para el ejercicio del derecho de opción del Conservatorio de Música de Grado Medio de Donostia (Donostia-San Sebastián) y del Conservatorio de Grado Medio «Jesús Guridi» (Vitoria-Gasteiz).

El Parlamento Vasco en su sesión de 23 de marzo de 1998 aprobó la Ley para la integración del Conservatorio de Música de Grado Medio de Donostia (Donostia-San Sebastián) y del Conservatorio de Música de Grado Medio «Jesús Guridi» (Vitoria-Gasteiz) en la red pública de centros docentes dependiente de la Administración General del País Vasco.

Para ejercitar el derecho de opción ambos Conservatorios de Grado Medio disponen de un plazo de seis meses a contar desde el día de la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la citada Ley, que tuvo lugar el día 4 de mayo de 1998.

La mencionada Ley encomienda al Departamento de Educación, Universidades e Investigación la regulación del procedimiento para el ejercicio de la integración, respetando en todo caso, lo dispuesto en los artículos 2 y 3, y que vienen a implicar materias tan importantes como aquéllas que afectan al patrimonio donde se ubican actualmente los Conservatorios, como al personal docente y no docente que presta servicios en los mismos.

La culminación de todo este proceso es, tras la verificación de todo el proceso, que cada Conservatorio será creado como centro docente público mediante el correspondiente Decreto del Consejo de Gobierno.

Por todo ello,